



**Arartekoaren 2013ko azaroaren 21eko ebazpena. Horren bidez, Sestaoko Udalari gomendatzen zaio kexagilea eta haren familia bizi diren helbidean errolda ditzan.**

### Aurrekariak

1. (...) -k erakunde honetan kexa bat aurkeztu zuen hura eta haren familia Sestaoko (...) kaleko (...) zenbakian –haien etxebizitzan- erroldatzeko egindako eskaera ukatu ziotelako.

Pertsona horrek esan digu 2012ko azaroaren 6tik aipatu etxebizitza alokairuan daukatela. Udalera jo zuen errentatzailearekin batera, haren familiarekin errolda ziezaioten, baina azalpenik eman gabe esan zieten ezin zutela erroldatu. Horren guztiaren ondorioz, ez dute aukerarik izan haien seme-alabak eskolatzeko, ezta osasun txartela eskuratzeko ere. Hortaz, erakunde honen esku-hartzea eskatu dute legez kontraktat jotzen duten udal jarduera baten aurrean.

Kexaren edukia ikusirik, udalari informazioa eskatu genion udal jarduera arlo horretan indarrean dauden legeekin bat datorren egiaztatzeko. Balorazio hori burutu ahal izateko, honako informazioa bidaltzeko eskatu genuen:

- Erroldatzeko eskaera gaitzesteko arrazoiak jasotzen dituen ukatzeko ebazpena.
  - Erroldako arduradunaren txosten juridikoa edo kasu horietan nola jardun behar den ziurtatzen duen aholkularitza juridikoaren txostena.
  - Kexa hori ebazteko interesgarritzat jotzen duzun beste edozein informazio.
2. Sestaoko Udaleko alkateak, 2013ko urriaren 3ko idazkiaren bidez, erantzuna eman zion gure informazio-eskaerari, udal jarduera baloratzeko eskatu genizkion agiriak bidali ez bazituen ere.

Aurrekari horiek ikusita, ebazpen hau egin dugu, ondoko gogoeta hauekin:

### Gogoetak

1. Sestaoko Udalari adierazi diogunez, biztanleen udal erroldari buruzko 2013ko irailaren 6ko gure gomendioan<sup>1</sup>, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen maiatzaren 2ko 7/1985 Legeak xedatzen du udal errolda **administrazio erregistro** bat dela eta bertan udalerrian bizi diren herritarrak jasota daudela (16.1 artikulua).

---

<sup>1</sup> Arartekoaren 2013ko irailaren 6ko ebazpena. Horren bidez Sestaoko Udalari gomendatzen zaio erroldari lotutako hainbat praktika legezketasunera egoki ditzan.



Horrez gain, 17.2 artikulua hauxe dio: **“Udalek beren erroldak eguneratuta mantentzeko beharrezko jardute eta eragiketak egingo dituzte, erroldan jasotako zehaztasunak errealitatearekin bat etor daitezela.”**

Hortaz, udala arduradun den administrazio erregistro baten aurrean gaude eta udalerrian bizi diren pertsona guztiak inskribatuta egotea du xede. Ildo horretan, gailendu behar dugu kontu horretan esku hartzeko udalek dituzten mekanismoen bidez bakarrik lor daitekeela udalerrian bizi diren herritarrek erregistroan isla daitezela.

Hori da udalek esku hartzeko testuingurua, alegia, ez da bidezkoa biztanleen erroldak duen xede bakarrari –persona bat bizileku jakin batean bizi den edo ez zehaztu- erantzuna emateko egokiak ez diren baldintzak eskatzea.

Hala, Tokiko Erakundeen Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudiko 59.2 artikulua –BLMA- (ekainaren 11ko 1690/1986 ED) xedatzen duen egiaztapen ahalmenak udala ez du gaitzen bizilekuaren errealitatea egiaztatzean ez dautzan baldintzak egiaztatu eta eskatzeko edo, bestela esanda, agindutako eginkizunen gehiegikeria baten aurrean egongo ginateke, udal jarduerak pertsona baten benetako bizilekua egiaztatu behar ez duenean.

EINen 1997ko uztailaren 4ko ebazpenak <sup>2</sup> kontu hori argitzen du honako hau xedatzerakoan (3. artikulua):

*“El Padrón es el registro administrativo que pretende reflejar el domicilio donde residen las personas que viven en España. Su objetivo es, por tanto, dejar constancia de un hecho, por lo que, en principio, no debe resultar distorsionado ni por los derechos que puedan o no corresponder al vecino para residir en ese domicilio, ni por los derechos que podrían derivarse de la expedición de una certificación acreditativa de aquel hecho.*

*En consonancia con este objetivo, la norma fundamental que debe presidir la actuación municipal de gestión del Padrón es la contenida en el artículo 17.2 de la Ley de Bases de Régimen Local: «Realizarán las actuaciones y operaciones necesarias para mantener actualizados sus Padrones de modo que los datos contenidos en éstos concuerden con la realidad».*

2. Kexak mahaigaineratzen duen kasu zehatzean, alkateak hamaika orrialdeko erantzuna bidali digu eta horiek ez dute zerikusirik errolda eskaera egin duen familia benetan eskatutako etxebizitzan bizi ote den egiaztatzearekin. Haien bizilekua ez dela egiaztatuz gero, arrazoi horrek erroldan izena emateko eskaeraren ukoa justifikatuko luke.

Jasotako erantzunetik azken paragrafoa baino ez da aipatu behar. Bertan, hauxe adierazten da:

---

<sup>2</sup> Estatistikako Institutu Nazionalako lehendakariaren eta Lurralde Lankidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 4ko ebazpena argitaratzea xedatzen duen Idazkaritzaordearen 1997ko uztailaren 21eko ebazpena, 1997/07/25eko 177. BOE. Horren bidez, udalei udaleko erroldan jarduteari buruzko jarraibide teknikoak eman zaizkie.



*“Por todo ello, se ha adoptado el Decreto de 5 de diciembre de 2012, por el que entre otras cuestiones se ordenó el desalojo de cuantas personas residen en el local de la planta ubicada en la mano izquierda del portal del inmueble nº (...) de la calle (...), habiéndose incumplido dicha orden de desalojo, pretendiéndose por la vía de los hechos asentar la ilícita ocupación del local.”*

Informazio horren arabera, Sestaoko Udalak onartzen du familia hori aipatu etxebizitzan bizi dela. Izan ere, eraikuntzaren jabearen aurka emandako utzarazte agindua ez da bete.

Halaber, berriro ere azpimarratu behar dugu udalak bakarrik duela ahalmena pertsonen benetako egoitza egiaztatzeko, alegia, erroldatzeko egiten duten eskaeran jasotako helbidea dela ziurtatzekoa eta ezin du erroldatzeko eskaera hori ukatu egiaztapen horiei lotuta ez dauden kontuengatik (esku hartzeko mekanismo juridiko propioak dituen hirigintzako diziplinari lotutakoak barne).

Laburbilduz, aipatu etxebizitzan jazo ahal izan diren gorabeherek -utzarazte agindua ez betetzea barne- ez diote aukerarik ematen udalari egitate-bidean jarduteko, legez ezarritako izapide eta prozedurei lotu gabe, ondorengo kontuan hartuzkoan baloratuko dugunaren arabera.

Horrez gain, azpimarratu behar dugu egitate-bide hori are larriagoa dela oraindik adingabeei eragiteagatik, oinarritzko zerbitzu publikoak –adibidez, osasuna eta hezkuntza- eskuratzeko aukera eragozten baitzaie.

3. Azkenik, kontuan hartuzko hauen amaierarako utzi dugu, hala ere ez du garrantzi gutxiago, administrazio prozedura orotan garrantzi handikoa den eta 2013ko irailaren 6ko gomendioan ere jorratu genuen kontu formal bat (lehen aipatu dugu).

Erakunde honek jaso duen erantzunari ez dizkiote erantsi berariaz eskatutako agiriak, alegia, ez da gehitu errolda eskaera ukatzen duen ebazpena, ezta erroldatzeko eskaera hori ukatzeko behar bezalako arrazoiak biltzen dituen txosten juridikoa ere.

Azken batean, espedienterik eza ikusirik, ondorio hau baino ezin dugu atara: familia kexagilearen errolda eskaera de facto bidetik ukatu da, behar bezalako izapiderik eta aintzat hartzeko ebazpen arrazoiturik gabe.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 53., 54. eta 55. artikuluei jarraiki, egintza administratiboak ezarritako prozedurarekin bat etorriko dira eta behar bezala arrazoitu beharko dira, gertakarien eta zuzenbideko oinarrien gaineko erreferentzia laburra eginez eta idatziz bideratuko dira.





Horrez gain, Tokiko Erakundeen Antolamenduaren eta Funtzionamenduaren Araudiak espedienteak eta horien izapidea definitzen ditu. Hala xedatzen du espediente bat dela administrazio ebazpenaren aurrekari eta oinarri diren agirien eta jardueren multzo ordenatua, baita hori betearazteko eginbideak ere (164.1 artikulua). Gainera, 172. artikulua ezartzen du administrazio espedienteetan bulegoko arduradunak horiek izapidetzeaz arduratuko denari informazioa emango diola haren irizpideak oinarri dituen legezko eta arauzko xedapenak eta aurrekariak azalduz.

Labur esanda, eroldan alta emateko ukatzen den eskaera ororen inguruan nahitaez dagokion espedientea izapidetu behar da eta espediente horrek gutxienez bulegoko buruaren eta, hala badagokio, aholkularitza juridikoko buruaren txostenak bilduko ditu. Arartekoaren ebazpenak edo eskuordetzeagatik eskumena duen organoak eskaera ukatzeko baliatutako zuzenbideko oinarriak ezinbestean azaldu beharko ditu, derrigor idatziz egin beharrekoa eta interesdunari modu egokian jakinarazi beharrekoa.

Azkenean, gailendu behar dugu biztanleen eroldako arduradunak eroldan alta emateko eskaera bat jasotzen duenean eta une horretan erantzuna eman ezin zaiola uste duenean, idatziz egiteko eskatu behar duela dagokion administrazio izapidea abiarazteko eta interesdunei bete beharreko eta jarraitu beharreko izapideen berri behar bezala eman behar diela.

Gauzak horrela, ezin dugu ahaztu herritarrek egin nahi dituzten eskaerei **indarreko xedapenek** ezartzen dizkieten baldintza juridikoen edo teknikoen gainean egiazko informazioa eta orientazioa lortzeko eskubidea dutela [HAAJAPEko 35 g)- i) artikulua].

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### GOMENDIOA

Indarrean dagoen araudia betez, Sestaoko Udalak albait lasterren errolda ditzan Marius Radu eta haren familia haien ohiko bizilekuan (...).

